



## **Funtsezko elkarteak**

Gure enpresen jarduerak aurrera eramateko aliantzak ezinbestekoak izango dira. Beste enpresa batzuk azpikontratatu beharko ditugu, guk egin ezin ditugun zenbait ekintza egiteko. Enpresa horiek espezializatuak daude behar dugun horretan, eta gainera ekintza horiek merkeagoak egingo dituzte langilerik kontratatu beharko ez ditugulako

Alde batetik, banaketa-enpresa baten bitartez egingo ditugu banaketak. Enpresa bat azpikontratatu dugu (SEUR) eta enpresa honek egingo ditu banaketak. Alokatzaileak produktua SEURi entregatu beharko dio, eta enpresak banaketa 24h-tan egingo du. Modu honetan, bi erabiltzaileen arteko harreman zuzena ekidingo da, eta egoera deseroso hori ekiditea ahalbidetuko dugu. Gainera, modu honetan, produktuak ongi paketatuko dituzte eta erabilpen instrukzioak emango ditugu. SEURekin Rappel-a erabil genezake zerbitzua erabiltzen dugunaren arabera merkeagoa izatea lortzeko.

Horretaz gain, produktuak aseguruak egongo dira. Bezeroak hasiera batean fiantza bat ordaindu beharko du eragozpenik izan ezean itzuli egingo zaiona. Produktu hori hautsi egiten bada, zati bat fiantzarekin ordainduko da, eta beste zati osoa guk estaliko dugu. Prozesu hau honelakoa izango izanga da: guk aseguru batekin aliantza egingo dugu (Mapfre adibidez). Horren ondorioz, aseguru merkeago bat eskuratuko dugu. Aseguru horrek produktuen arazoak estaliko ditu. Gainera, alokatzen duenak fiantza bat ordainduko digu guri, eta produktuak eragozpen bati izaten duen ezean itzuliak izango dira.

Horrela, alokatzailek eta baita bezeroak ere esperientzia seguru bat izango du eta gure webgunea erabiltzera bultzatuko ditu.

Azkenik, garbiketa-enpresa bat azpikontratatu beharko dugu.